

Duras itzultzearen arduraz... eta abenturaz

XABIER ARTOLA ZUBILLAGA

Marguerite Durasen *La douleuren* frantsesetiko itzulpena¹ dela-eta, esan beharra daukat ezer baino lehen esperientzia kontatzera mugatuko naizela artikulua honetan, ezinbestean; izan ere, ez nago ni oso jantzita itzulpen teoriaren aldetik, ez naiz itzultzaile profesionala, eskarmentu handirik ere ez daukat langintza honetan, eta ezin, bada, besterik egin.

Betidanik gustatu izan zait itzulpengintza, edo, hobeto esan, testugintza oro har. Idaztea da benetan gustuko dudana, hitzen bidez eta idatziz adieraztearekin zerikusia duen guztia. Eta irakurtzea, literatura. Autodidakta samarra hizkuntzarekin zerikusia duen guztian, ez dut ahazteko Martuteneko eskolan, oker ez banago larunbat goizetan, egiten ziren ikastaro haietan –80ko hamarkadaren amaiera aldera– ikasitako guztia, ikastaro haiek piztu baitzuten nire baitan itzulpengintzarako harra, eta izan banuen jaidura sendotu.

Horra, bada, nire prestakuntza itzulpengintzan. Baina egiten eginez ere ikasten denez, ikasi dut, eta asko, nire lehen literatura itzulpen hau egitean. Aurrez gauza gutxi euskaratu izan ditut beste hizkuntza batetik: informatika libururen bat edo beste, hitzaurreren bat, irakaskuntza testuak, poema solteak... Baina aspaldiko arantza nuen literatura lan oso bat euskaratzearena, eta pausoa eman nahi nuen.

Urtero-urtero ematen nion begiratu bat Literatura Unibertsala lehiaketa deialdiari –edo Jokin Zaitegiri–, ea neuk egiteko moduko liburu laburren bat-edo aurkitzen ote nuen; eta inoiz baita aurreneko orrialdeak itzultzen hasi ere, eskatutako lagina osatze aldera. Hala ere, orain arte ez nuen laginik bidaltzeko ausardiarik bildu. Egin nahi baina ausartzen ez, horixe komedia: lanaren muntak, zailtasunak, gai izango ote nintzen... atzera eragiten zidaten beti atzenean.

Halako batean, baina, animatu nintzen, eta duela bi urte *La douleuren* lehen hamar orrialdeak euskaratu eta lagina bidali nuen Literatura Unibertsala lehiaketara, erabaki gabe, artean,

1. *Samina*. Erein & Igela, 2014.

ezta zein izenburu emango niokeen liburuari ere. Eta, itxaropen handirik ez nuen arren, irai-lean mezua jaso nuen, itzulpena esleitu zidatela esanez: hura poza... eta beldurra, hura ardu-ra... eta abentura (zetorkidana!).

Zergatik hautatu nuen hautatu nuena? Durasen lana ezagutzen nuelako, batetik, lehendik zerbait irakurria nion behintzat, eta, ezertan hasi aurretik, *La douleur* irakurri eta izugarri gustatu zitzaidalako; gerra zuelako gai liburuak, bestetik, eta gerra –gerrak pertsonongan uzten duen arrastoa, batik bat– beti interesatu izan zait literaturan; jatorrizkoaren hizkuntzagatik; testuaren luzeragatik beragatik (218.000 karaktere, ez zen behintzat liburukote bat); eta, azkenik, esaldien laburragatik, esaldi korapilatsudun testu bat baino itzulerrazago suertatuko zitzaidalakoan edo.

Eta orain hemen ari naiz, artikulua hau nondik burutuko! Bitartean, *La douleur* indartsua itzultzearen urtebeteko abentura, eta Durasen ahotsa euskal irakurleari helarazteko ardura eta erantzukizuna.

Duras eta *Samina*

Martuteneko ikastaro haietako irakasleren bati ikasi nion, idazle baten testu bat itzultzeko, haren obra osoa ezagutu eta irakurri behar dela aurrez, itzultzen hasterako. Ez dakit hori hala izaten den praktikan, itzultzaile profesionalak zer egiten duten ez dakit. Baina aitortu behar dut nik ez dudala egin, eta ez da gogo faltaz izan: Marguerite Durasen obra hain da zabala, ezen ez baita samurra epe labur batean hartaz behar bezala jabetzea. Hala ere, eta lehendik ere banekien arren, inoiz baino argiago ikusi –eta ikasi– dut egilearen eta haren obraren gainean asko jakin behar dela, gauzak txukun egingo badira. Eta ez da obra osoa bakarrik, baina baita idazlearen biografia, itzulgai den testuaren berri eman dezaketen lanak, egileari buruzko bibliografia (ugaria, Durasenean), eta, *Samina* bezalako liburuen kasuan, kontatzen direnak gertatzen diren garai eta egoera historikoari buruzko literatura, zientifikoa zein fikziozkoa. Eta hori dena gabe, noski, ausardia ere egotz lekiok itzultzaileari, eta arrazoiz, gainera; baina hori dena egiteko denbora asko behar da, eta ez neukan, egia esan.

Esana dut gogoan ezagutzen nuela Marguerite Durasen obra, irakurria niola zerbait aurretik. Besteak beste, Mikel Garmendiak duela ia hogeitau urte euskaratutako *L'Amant* (*Maitalea*, Ibaizabal, 1996) irakurria nuen bere garaian, eta berrirakurri egin nuen *La douleur*en itzulpenari ekin nionean; horren ondoren, Durasen beste liburu batzuk ere irakurri ditut, jatorrizko hizkuntzan, itzulpena egiten jardun naizen bitartean, eta harekin amaitu eta gero ere bai. Egilearen ahotsaz, tonuaz, hobeto jabetzeko aukera ematen dizu haren beste obra batzuk irakurtzeak; eta ahots hori ahalik eta egokien transmititzea da itzultzailearen zereginik behinena eta zailena.

Bestalde, *Samina* ez da edozein testu, hari buruz asko hitz egin eta idatzi da. *Saminari* buruzko bibliografia akademikoa –eta bestelakoa– ugaria da. *La douleur*, Durasen hitzetan, *egunkari* bat da, haren etxebizitza izandako *Neauphle-le-Château*-ko *armairu urdin*etako *bi kaieretan aurkitua*, idatzi zuenik ere batere gogoan ez duena, urteetan abandonatua: hala dio egileak

liburu osoari izenburua ematen dion lehen narrazioaren hitzaurre moduko batean. Egunkari hori *Cahiers de la guerre* (gerrako kaierak) izenburupean argitaratu zen gero, Sophie Bogaert eta Olivier Corpet-en eskutik², eta, liburu honetako narrazio batzuen lehen bertsioak ez ezik, Durasen beste eleberrri batzuen ernamuin diren kontakizunak ere ageri dira bertan. Kaiera horiek ere irakurri nituen, noski. Esan dezadan, ezagutzen ez duenarentzat, *Samina* hainbat narrazioz osatua dagoela, eta Bigarren Mundu Gerran, Paris okupatuan zein liberatu berrian, gertatzen direla narrazio horietan kontaktzen direnak.

Eta Durasen munduaz jabetzen joan naiz pixkanaka. Haren biografia nobela bat bezala irakurtzen da, egia esan. Eta egileari –eta *Saminari*– buruzko bibliografia, artikulua, tesiak eta abar ugariak dira, ehunka daude webean. Horietako askotxo ere irakurri –edo gainbegiratu behintzat– egin ditut. Eta bai film batzuk ikusi ere, hala nola *Hiroshima mon amour*, zeinen gidoia idatzi baitzuen Durasek, edo *L'ortie brisée*, *Saminako* izenburu bereko narrazioan oinarritutakoa.

Horrek denak ikuspegi zabalago bat eman dit, inondik ere, itzulgaia nuen obra beste maila batean ulertzeko. Egileak bere literaturan jorratu dituen gaien eta haren idazkeraren nondik norakoen berri jakiteak duen garrantziaz bereziki jabetu naiz nire lehen esperientzia honetan.

Lan egiteko modua

Itzulpena esleitu zidatelako berri izan, eta lana egiteko izango nuen denbora 10 hilabetekoa izango zela jakin orduko, plan bat egin nuen, eta hilabeteen zenbat hitz itzuli behar nituen kalkulatu nuen, itzulpenaren lehen bertsioa 8 hilabeteen burutzeko: lehiaketara aurkeztutako lagina (4.700 hitz, gutxi gorabehera) alde batera utzita, 5.000-5.500 hitz itzuli behar nituen hilabeteen, batez beste. Azken bi hilabeteak testua irakurri, findu eta hobetzeko behar nituen, jatorrizkotik nolabait “askatu” eta euskaraz irakurgarria eta egokia izango zen testu bat eratuko banuen.

Saminan sei narrazio daude, zein baino zein laburragoa: liburuari izenburua ematen diona da lehenengoa eta luzeena, eta 19.400 hitz ditu; bigarrenak 11.100, hirugarrenak 6.900... eta azkenak, berriz, 2.300 baino ez. Liburuan, guztira, 47.500 hitz dira, gutxi gorabehera.

Ez dut arazorik izan egindako plana betetzeko, eta hilabetea aurrerapenez bukatuta neukan lehen bertsioa. Kontuan izan behar da ez naizela itzultzailea lanbidez, eta, beraz, lan orduetatik kanpoko tartetean, Gabonetako eta udaberriko oporretan, eta asteburuetan egindako lana dela.

Narrazio bakoitza bukatu ahala, obra ezagutzen ez zuten bizpahiru laguni ematen nion irakurtzeko. Helburua, jakina, akatsak bilatzea, pasarte ulergaitzak atzematea eta, batik bat,

2. P.O.L. / Imec, 2006. Bada, halere, egunkari horren existentzia bera zalantzan jarri izan duenik, Robert Antelme-ren bigarren emazte Monique Régnier, esaterako.

testuak irakurtzean ondo korritzen zuenetz egiaztatzea. Gauza bera egin nuen bukaeran beste bospasei lagunekin, testu osoaren lehen bertsioa burututakoan.

Frantsesezko eta testuinguru historikoari buruzko zalantzak argitzeko orduan ere, ondoan izan ditut bizpahiru lagun. Eta Inazio Mujika editorea ere aipatu beharra daukat, oso ohar eta iradokizun egokiak egin baitzizkidan testua argitaratu aurretik. Esker ona adierazi nahi nieke hemendik laguntza musu truk eskaini didaten adiskide horiei guztiei, uste ez duten bezalako garrantzia izan baitu eman didaten *feedback*ak azken emaitzan.

Beste sekreturik ez dut azaltzeko, horixe izan da nire lan metodoaren funtsa. Eta testua hamaika aldiz irakurri eta hamaika aldiz aldatu; hamaika aldiz irakurri eta hamaika aldiz hobetu –edo horretan saiatu, behinik behin–; irakurri eta zuzendu, eta zuzendu, eta zuzendu... Ondo asko ikasi dut testu bat ez dela sekula amaitzen erabat, eskerrak epemuga iritsi eta entregatu beharra zegoen!

Makulutzat erabilitakoak

Ordenagailuaz aparte, honako hauek erabili ditut, itzulpenean lagungarri:

- Gaztelaniazko eta ingelesezko itzulpenak³. Bi itzulpen horiek desberdinak dira: gaztelaniazkoa, estu lotzen zaio jatorrizkoari, hitzez hitz ia; ingelesezkoa, berriz, askoz libreagoa da. Eta ingelesezko itzultzaileak testua ingelesez ematean hartu duen libertate hori lagungarria suertatu zaio euskarazko itzultzaileari, edukiak ematerakoan aukera desberdinak iradoki baitzizkio, oso baliagarriak askotan.
- Hiztegiak. Bakarren batzuk aipatzen hasita, eta Firefox nabigatzailearen *Euskalbar* gehigarriaren bitartez gehienetan, milaka kontsulta egingo nituen Elhuyar eu-fr eta fr-eu hiztegietan, Zehazkin eta, batez ere, Nola Erranen. Esan gabe doa, sarean diren frantsesezko hainbat hiztegi ere baliatu ditut.
- Amarauna, jakina: jatorrizko testua ulertzeko zein helburukoa sortzeko, hiztegiak eta itzulpen memoriak kontsultatu ditut, corpusak arakatu ditut⁴, artikulu akademikoak eta kritikak irakurri ditut... Nolatan moldatzen ote ziren itzultzaileak lehen, Internet gabe?
- Galderaren bat edo beste ItzuL-en ere bota dut, eta, beti bezala, komunitatearen laguntza paregabea jaso dut.

3. • (es) *El dolor*. Plaza & Janés Editores, Esplugues de Llobregat, 1985 (Clara Janés-en itzulpena).

• (en) *The War: A memoir*. The New Press, New York, 1994 (Barbara Bray-ren itzulpena).

4. • Lexikoaren Behatokia (<http://lexikoarenbehatokia.euskaltzaindia.net/cgi-bin/kontsulta.py>).

• Ereduzko Prosa (<http://www.ehu.eus/euskara-orria/euskara/ereduzkoa/>).

• Egungo Testuen Corpora (<http://www.ehu.eus/etc/>).

• ItzuL zerrendaren mezu bilduma (Firefox nabigatzailearen Euskalbar pluginaren bidez atzitu).

• Linguee (<http://www.linguee.es/frances-espanol>; <http://www.linguee.fr/francais-anglais>).

- Eta Wordfast, itzulpen softwarea. Literatura itzultzean itzulpen memoria erabiltzea beste mota bateko testuen kasuan bezain baliagarria ez bada ere, itzulpena antolatzeke orduan laguntza handikoa suertatu zait niri. Jatorrizko testua segmentuka aurkeztea⁵, liburutik pantailara edo leihotik leihora begira ibili behar ez izatea, lagungarriak dira oso, esaldi bat ustekabeen itzuli gabe ez dela geratzen bermatzeko besterik ez bada ere (tankera horretako deskuidurik atzeman dut, izan ere, *La douleuren* espainolezko itzulpenean, esaterako). Baina ez horretarako bakarrik: Durasen estiloa esaldi laburretan oinarritzen da, eta, batzuetan, elkarrizketetan esate baterako, esaldiak errepikatu egiten dira, erabat ez bada ere bai partez, sarri; kasu horietan, itzulpen memoria kudeatzen duen software batez baliatzeak lagundu egiten du itzulpenaren koherentzia gordetzen. Bestalde, lana burututakoan itzulpen memoria ere hor geratzen da, eta azpiproduktu interesgarria suerta daiteke, corpus elebidun bat antolatzeke baino ez bada ere.

Itzulpen arazoak

Durasen estiloa telegrafikoa da, gordina; *desegituratua*, hala irakur liteke hor eta hemen, haren estiloa aipagai duten testu eta lanetan. Irakurteraztat ere har liteke, lehen begiratuan. Idazkera simple eta aske –anbiguo, maiz– horrek, baina, oihartzun bat uzten digu irakurritakoan. Duras gai da gogoeta eta sentimendurik sakonenak oso hitz sinpleak erabiliz adierazteko. Eta erritmoa dago, gainera, estilo telegrafiko horri esker lortzen duen erritmoa. Horretan guztian dago, nire ustez, itzulpen arazorik handiena: edukia transmititu estiloari traiziorik egin gabe, mamia bere azalean txukun helarazi irakurlearenganaino. Baina hori guztia literatura itzulpengintzaren beraren arazoa –eta funtsa– da, ez naiz ezer berria esaten ari, noski.

Atal honetan itzulpen hau egitean izan ditudan arazo konkretu batzuk aipatu nahi ditut, eta zer irtenbide eman didan argitu.

- Izenburua. Aipatua dut lagina lehiaketara bidali nuenean ez neukala argi zein izenburu eman euskaraz liburuari. Errazena *Mina* zen, seguru asko, baina hor zeuden *Oinazea* eta *Samina* ere. Eta ingelesezko bertsioari erreparatuz gero, berriz, *Gerra* edo *Gerrakoak* edo halako zerbait ere izan zitekeen izenburua, zergatik ez. Nolako minaz/saminaz/oinazeaz ari zaigu Duras bere liburuan? Ez da min fisikoa, baina min fisikoa ere bada: ez da aise ahaztekoa nola irudikatzen digun Robert L.-ren egoera fisiko errukarria, kontzentrazio esparrutik ekartzen dutenean. Baina, batik bat, barru-barruko minaz ari zaigu idazlea, gerrak haren barruan utzitako samin saminaz, inondik ere. Bistan da, hortaz, egokiena *Samina* iruditu zitzaidala, eta horrela argitaratu da liburua. Izenburu hori hautatzeko zalantzarik handiena, halere, inpresio oker batek eragiten zidan, alegia, uste bainuen

5. *La douleuren* bertsio elektronikoa eskuratu nuen, PDF formatuan, eta, Word formatura bihurtu nuen erdiautomatikoki. Behin Word formatuan, Wordfast softwarearen laguntzaz erabili nuen, itzulpena egiteko.

samin, euskal literaturan, maizago erabili izan dela adjektibo gisa izen gisa baino; sarean eskura diren corpusetan egindako kontsultek ez didate, baina, hori baietsi.

- Elkarrizketetan, solaskideen parte hartzeak identifikatzeko estilo monotono samarra dabil Durasek, eta hori euskaraz emandakoan are monotonoagoa gertatzen zitzaidan niri. Aditz denbora egokia aukeratu ezinik geratzen nintzen askotan, eta, beste batzuetan, senak jatorrizkoan ez zegoen *etaren* bat edo beste sarrarazten zidan; irakurleak esango du asmatu dudana ala ez.

Lehen narrazioko elkarrizketetan, batik bat, honelatsuko sekuentziak gertatzen dira maiz jatorrizkoan, solaskideen esku hartzea identifikatzeko:

- (fr) Elle dit : / Je recommence : / ...elle crie : / Elle dit :

Edo honako hau:

- (fr) Je demande : / Perrotti regarde D. : / Je demande : / D. prend la parole : / C'est Perrotti qui répond. / Le jeune demande : / Moi : / Le jeune : ...

Sekuentzia horiek elkarrizketa laburrei dagozkie; esan beharra dago, halere, elkarrizketak ez dituela beti-beti horrela ematen, batzuetan solaskideen arteko parte hartze bat baino gehiago komatxo frantsesen (*chevron*) artean biltzen baititu, marratxo luzez bereiziz barruan batarenak eta bestearenak. Edonola ere, honela eman ditut nik goiko horiek, hurrenez hurren, buelta asko eman eta gero:

- (eu) Esaten du: / Berriro diot: / ...eta oihuka dio: / Esaten du:
- (eu) Galdetzen diot: / Perrottik D.-ri begiratzen dio: / Galdetzen diot: / D.-k hartzen du hitza: / Perrottik erantzuten du. / Gazteak galdegin du: / Eta nik: / Eta gazteak:

Non dago arazoa? Ez zait orain iruditzen, egia esan, hainbestearinoko arazoa dagoenik hor, euskaraz luzetxoago geratzen dela ez bada, baina gogoan dut itzultzen ari nintzela buruhauste bat baino gehiago eman zidatela horrelako segidek. Bistan denez, aditz denboren aldaketak egiteko lizentzia hartu dut zenbaitetan, edo, esan bezala, jatorrizkoan ageri ez den *etaren* bat sartu dut. Irakurle senak agindu du erabaki horietan.

- Gutxitan, baina testuaren erritmoa motelarazten duen zerbait sartu beharra ere izan dut: ez da berdin irakurtzen, izan ere, *elle dit* edo *emakumeak esaten du* (edo *dio*), baina jakina da euskarara itzultzean horrelakoak suertatu ohi direla zenbaitetan.
- Hikako tratamenduaren erabilera izan da nire beste kezketako bat. Jakina denez, frantsesez *tu* eta *vous* erabiltzen dira solaskidearekiko harremanean, eta horrelaxe gertatzen da *La douleuren* ere: pertsonaia batzuek elkarrekin *tuka* egiten duten bitartean, beste batzuek *vouska* dihardute. Bestalde, esan beharra dago Durasek ez duela erabat koherente jokatzeko kontu honetan, gertatzen baita inoiz bi pertsonaiaren artean pasarte batean *tuka* aritzea eta beste pasarte batean *vouska*.

Nola eman tratamendu modu horiek euskaraz? Jakin beharra dago nolakoa zen erabilera hogeigarren mendearen erdi aldera, eta Frantziako ipar aldean, Parisen hain zuzen. Esate baterako, Erresistentziako kideen artean, nahiz eta jatorrizkoan *vous* erabili (Durasek ez du beti berdin jokatzeko kasu horretan ere), zilegi al zaio euskal itzultzaileari hikako tratamendua erabiltzea? Gaian zertxobait ikertu eta gero, eta gauzak ez zeudela oso argi ikusita, biderik errazena hartu nuen, kasuren batzuetan salbu: jatorrizkoan *vous* erabiltzen denean, *zu* erabili dut itzulpenean, eta *tu* erabiltzen denean, *hi*. Oker ez banago, salbuespen bakarra azken ipuinean egin dut, haur batek zaintzen duen andreari jatorrizkoan *tuka* egiten dion arren, nik zuka eman baitut euskarazkoan. Gerora pentsatu izan dut ez zegokeela gaizki, agian, kasu horretan ere hikako tratamenduz baliatzea, kontuan izanik egoera, eta jakinda haur horrek ez duela, seguru asko, emakumeaz beste inorekiko harremanik izan ezagueran sartu denetik. Kontuak kontu, halere, zuka geratu da argitaratutako bertsioan.

- Lexikoa dela-eta, ohar bat baino ez. Oker edo zuzen, *Nola erranek emandakoaren* alde egin dut maiz, forma aratuak zirela egiatzatuta beti: *ofizier* edo *presoner* hautatu ditut *ofizial* eta *presoren* kaltetan, esaterako, kontatzen direnak non eta noiz gertatuak diren aintzat hartuta.

Izan ere, zer da batua lexikoaren ikuspegitik? Eztabaida maiztu samarra dugu, badaikit. *Izara* eta *mihise maindire* bezain batukoak ditugu, zalantzarik ez, baina nago ez ote dugun (hegoaldekook, batik bat) hori teorikoki baino ez onartzen sarri. Hiztegi Batuan bertan, euskalki ikur batzuk eztabaidagarriak iruditzen izan zaizkit beti, eta adibide bakar bat baino ez dut aipatuko:

ezkarda 1 iz. *Ipar*. ‘izpia, puskatu den zerbaiten zatia’ 2...

Gurean erabiltzen dugu hitz hori lehen adiera horretan⁶, badakigu zer den egurrarekin lanean aritu eta ezkarda haragian sartzea. Orotarikoan ere ez dio iparraldeko izaera esleitzen hitz horri, baina *Batuan* halaxe ageri da, *Ipar*. marka eta guzti. Zer dela eta? Hori guztia esateko, alegia, *Batuan Ipar*. markarekin ageri den hitz dezente erabili dudala, seguru asko, *Samina* honetan.

- Oin oharrak. *Samina* testu autobiografikoa da neurri handi batean, eta lehen lau narratioetan aipamen historiko franko biltzen ditu: pertsonaia eta gertaera historikoak; Bigarren Mundu Gerraren historian beren garrantzia duten leku izenak; aldizkari, talde politiko eta abarren deiturak; eta abar. Batzuk oso ezagunak gaur egungo irakurle gehientzat: nork ez du Hitler ezagutzen? Beste batzuk, aldiz, ez hainbeste: ba ote dakite nor izan zen De Gaulle Gasteizko nerabeek? Eta zer jakingo ote du Francoz donapaleutar gazte batek?

6. Donostian jaiotako eta guraso donostiarrak zituen aita zenari ikasia.

- Nola jokatu behar da literatura itzulpen batean horrelako kontuekin? Testua oin oharrez betetzea da irtenbide bat, eta horixe izan zen, hasiera batean, nire asmoa. Hala ere, zalantza handiak nituen, oin oharren bidez zer azaldu eta zer ez erabakitzerakoan. Argi neukan, hori bai, gaur egungo irakurle euskalduna izan behar nuela kontuan, ipar zein hego aldekoa.

Itzulpen hau egitean ikasi dudan beste gauza bat izan da auzi honi dagokionez badirela (gutxienez) bi “eskola” edo joera munduan, ez dutela berdin jokatzeko hizkuntza desberdinetako itzultzaileek. Batzuek, dena azaltzearen aldeko izaki, *Samina* bezalako testu bat oin oharrez josiko lukete, irakurleari testuinguru historikoari buruz ahalik eta informazio osatuena eskainiz. Beste batzuek, aldiz, literatura dela argudiatuz, eta irakurleari testuaren haria galaraz diezaiokeen oro saihestearren, irakurlearen esku utziko lukete informazio hori bilatzea hala nahi badu, eta oso-oso ohar gutxi eskainiko liokete.

Nik ez bezala, editoreak argi zeukan bigarren bidea zela hartu beharrekoa itzulpen honen kasuan, eta horrela egitea gomendatu zidan. Halaxe egin nuen, eta oin oharren kopurua erruz jaitsi zen nire lehen bertsiotik argitaratutakora; hala ere, era horretako argibideak eskaini nahi izan dizkiot irakurleari, eta, hasierako oin ohar haietako askotako informazioa liburuaren amaieran erantsi dudan *Pertsona, erakunde, aldizkari, leku izen, sigla eta abarren aurkibide* batera aldatu dut (testuan bertan erreferentziarik txertatu gabe). Aurkibide hori liburuaren hitzaurrean aipatzen da, eta irakurleak aukera du, bezaz, bertara joz informazio pixka bat eskuratzeko, hala nahi badu.

- Puntuazioa dela-eta senak aginduta jokatu dut, eta ez dut beldurrik izan euskarazko testuan jatorrizkoan ez zegoen komarrik, edo puntu eta komarrik sartzeko, kasu gutxi batzuetan izan bada ere. Batzuetan beldur izan naiz hiperzuzentzen ari ote nintzen, egileak komarrik jarri ez duen lekuan koma jarritz; baina horrela jokatu dut, testuaren irakurgarritasuna bermatze aldera (nire iritzian, bederen).
- Elkarrizketak egituratzeko erabiltzen diren era guztietako komatxoekin eta marren kasuan, eta jakinda tradizio desberdinak daudela honetan ere, editorearen aholkuari jarraitu nion, eta Literatura Unibertsala bildumako liburuetan ohikoa den eskemaz baliatu nintzen.
- Izen arrotzen kasuan, deklinabide atzizkia lotzeko marratxoa erabili dut izenaren estreinako aipamenean; handik aurrerako beste aipamenean, berriz, zuzenean lotu diot atzizkia.
- Bukatzeko esan, *pont des Arts, quai des Arts, boulevard Saint-Germain, rue des Saussaies* eta tankerako kale eta bestelako leku izenen kasuan, eskura nituen bi itzulpenetan jotako bidetik jo dudala nik ere, eta *Arteen zubia, Arteen kaia, Saint-Germain bulebarra* edo *Sabastien kalea* alde batera utzi eta beren horretan eman ditudala, frantsesez bezalaxe, alegia.

Zenbaki batzuk

Jakingarri gisa, eta bati baino gehiagori bitxikeria irudituko zaion arren, kontu batzuk atera ditut eta beheko taula horretan ipini⁷. Zenbaki horiek erakusten dutenez, euskarazko testua %3,8 luzeago da jatorrizkoa baino, karaktere kopuruari erreparatuz gero. Hitz kopuruari begiratuta, aldiz, euskarazko testua trinkoagoa da, eta, hitzok batez beste luzexegoak badira ere, %22,1 hitz gutxiago ditu frantsesezkoak baino; normala, euskara hizkuntza postposizionala izanik.

	<i>La douleur</i>	<i>Samina</i>
Hitz kopurua	47.578	37.070
Karaktere kopurua (zuriuneak izan ezik)	217.925	226.209
Hitz luzera	4,58 kar./hitz	6,10 kar./hitz

Ez dakit horrelako azterketarik egin den beste testu batzuekin, baina gustura erkatuko nituzke baleude, nire hau frantsesetik itzulpenen estandarrekiko zertan den ikustearren.

Amaitzeko

Amaitzeko esan lana bezainbeste gozamina –eta ohorea– izan dela obra hau euskaratzea, irakurlearen esku dago orain balorazioa. Durasen ahotsa euskal irakurlearengana helarazteko ahaleaginean ez naiz xuhur ibili, nire onenak ematen saiatu naiz, eta denbora guztian izan ditut buruan emanak zizkidaten eta hartuak nituen erantzukizun-ardurak. Emaitza duina izango ahal da.

7. Kontuok Microsoft Word testu prozesadorearen bitartez egin ditut.

Resumen

En este artículo se describe la experiencia vivida en el proceso de traducción de *La douleur* de Marguerite Duras del francés al euskera. Dicha obra había sido propuesta en el concurso público de traducción *Literatura Unibertsala* (Literatura Universal) del año 2013. En el artículo explico el procedimiento seguido en la que ha sido mi primera traducción de una obra literaria: las razones por las que decidí presentarme al concurso, el trabajo realizado para ampliar mis conocimientos sobre la obra y su autora, el método y calendario seguidos en la traducción, los recursos utilizados para la misma, etc. Asimismo, doy cuenta de algunos problemas encontrados al verter la obra al euskera y de la solución dada a los mismos.

Résumé

Cet article décrit l'expérience vécue dans le processus de traduction de *La douleur* de Marguerite Duras du français au basque. L'ouvrage avait été proposé dans le concours public de traduction *Literatura Unibertsala* (Littérature Universelle) en 2013. L'article explique la procédure suivie dans ce qui a été ma première traduction d'une œuvre littéraire : les raisons qui m'ont emmené à participer au concours, le travail effectué pour élargir mes connaissances à propos de l'œuvre et de son auteur, la méthode et le calendrier suivis dans la traduction, les ressources utilisées pour la même, etc. Par ailleurs, je rends compte des problèmes rencontrés dans la traduction de l'ouvrage au basque et des solutions proposées pour eux.

Abstract

This article describes the experience lived in the process of translating Marguerite Duras's *La douleur* from French into Basque. This text had been proposed in the *Literatura Unibertsala* (Universal Literature) public translation contest in 2013. The article explains the procedure followed in what has been my first translation of a literary work: the reasons I had for applying to the contest, the work done to enrich my knowledge about the novel and its author, the method and schedule followed in the translation process, the auxiliary resources used in it, etc. Also, I describe some of the problems I found when translating the work into Basque and the solutions given to them.

